



Arartekoaren 2018R-559-18 Ebazpena, 2018ko urriaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Bilboko Udalari gomendatzen zaie neurriak har ditzatela eskolak kirol entrenamenduetarako eta eskolaz kanpoko ordutegian erabiltzearen inguruan.

Aurrekariak

1. Ebazpen honek aurreko espediente batean du jatorria, erakunde honetan 2017an abiarazia Bilboko patinaje artistikoko talde batek eskatuta. Erakunde horrek gehienez 14 urte dituzten adingabeekin egiten du lan, eta espediente horretan desadostasuna agertu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jarraituriko zenbait irizpiderekin, Bilboko Udalarekin batera, hiribilduko eskola guneak klubei esleitzearen arloan. Izan ere, haien kasuan bezala, eskolako orduetatik kanpora behar zituzten guneok entrenatzeko eta kirola egiteko.
2. 2016ko maiatzean, klub kexagileak CEIP Indautxuko Eskola HLHI 2016-2017 ikasturtean erabili ahal izatea eskatu zion Udalari. Aurkezturiko kexaren arabera, Bilbon oso instalazio gutxi daude eskola horretakoak bezalakoak, hau da, eskakizun bereziak dituen kirola izanik, ezin egin daiteke edozein pistatan.

Eskaera ez zen onartu, ordea, zeren eta eskaera lehenago egin zien saskibaloi klub bati esleitu baitzitzaizkion instalazioak. Udalak horrela ebatzi omen zuen, Euskara eta Kiroleko Udal Saileko zuzendariak erakunde honi jakinarazi zionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jarraibideen arabera. Izan ere, haren txostena aginduzkoa da, eraginpeko eskolakoak duenarekin batera, aipaturiko guneak erabilera horietarako esleitzeko. Jarraibide horien oinarria maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren 4.3. artikuluan bildutako denbora lehentasunerako irizpidea da. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eraikinak eta instalazioak ikastetxe horien urteko programazioan sartuta ez dauden jarduerak egiteko erabiltzea arautzen du dekretu horrek.

3. Ebazpena onartuta, eta bere oinarriari eutsita, eskabide bera egin zuen klub kexagileak 2017ko urtarrilean 2017-2018 ikasturterako. Horri erantzunez, Bilboko Udalak jakinarazi zion ezen, hain goiz izanik, ezinezkoa zela erabakitzea eskaera aintzat hartu ahal izatea, zeren eta obrak izan baitzitezkeen instalazioetan, edo zentroak eska baitzitzakeen lehentasunezko beste erabilera batzuetarako. Hortaz, horrelako entrenamenduetarako erabili ahal izateko, geroago egin behar zen eskaera.

Zentroko Zuzendaritzak, 2017ko ekainean, instalazioak 2017-2018 ikasturterako eskatu zituzten hainbat kirol erakundetara jo zuen, hauxe jakinarazteko: Udalak adierazita, instalazioak haien artean banatzeko akordioa egin behar zutela. Konpromisoa ez zen lortu, ordea. Hori dela-eta, klub kexagileak berriz ere eskatu zion udalari ebazpena eman zezala aipaturiko dekretuan bildutako irizpideak aplikatuz, edo eskatzaileei eskaturiko akordioa



lortzeko erraztasunak eman zitzala irizpide objektiboren bat ezarrita, hain zuzen ere dena ez zedin egon eraginpeko erakundeen borondate onaren menpe.

Balizko irizpideen artean, norberak egiten duen kirolari dagozkion beharren arabera instalazioen ezaugarriak aipatzen zituen, edo gizarte irizpideak edo bestelakok. Ildo beretik, aipaturiko saskibaloia klubak ez bezala, kadete, junior edo senior mailako taldeetan, hala denean, 15 urtetik beherako beharrak betetzea zela kontua zioen; izan ere, autonomia maila txikiagoa dute horiek euren etxeak ez diren beste toki batzuetara joan-etorriak egiteko. Era berean, haien arabera, kluba osatzen zuten 60 haurretatik -entrenamenduak egiteko instalaziorik ez zegoela- eta itxaronzerrendan zeuden pertsonak kontuan hartu barik-, 11 ziren entrenatzea eskatzen zuten zentroko ikasleak, eta 10 bertako ikasle ohiak ziren. Azkenean, ondorio gisa zioten errazagoa izango zela saskibaloia klub batentzat entrenatzeko beste toki bat aurkitzea, haien beharretarako egokia, zeren eta askoz instalazio gehiago baitaude egokiak kirol egiteko, bai publikoak, bai pribatuak.

4. Saskibaloia klubak, Hezkuntza Sailak Arartekoari jakinarazitakoaren arabera, Hezkuntza Sailak Bizkaian duen ordezkariak jo zuten egun beretan, eskaturiko instalazioak erabiltzeko baimena ez emateak ekarriko lituzkeen kalteak azaltzeko. Era berean, patinaje klubak -horren eskaerarekin bat zetorrena harena- beste eskola batean entrenatzea proposatu zuen. Hark zioenez, instalazioak libre zituen arratsaldeko 7:30etik gaueko 10:00etara. Informazio hori ez zen zuzena, ordea, ordezkariak zentro horrekin gestioak eginda egiaztatu ahal izan zuten. Zentroak adierazi zuten instalazioak ez zedela erabilgarri ordu horietan.

Gauzak horrela, 2017ko urrian, saskibaloia klubak berriz ere jo zuten Hezkuntza Sailera, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren gabezien ziozko beren haserrea adierazteko. Klubak zioenez, dekretuan ezarritako denbora-lehentasunaren irizpideak ez zuten batere logikarik ez eraginkortasunik, bere ustez, toki bera eta ordu berean erabili nahi denean irtenbidea emateko. Beste parametro batzuk kontuan hartu beharra aipatu ondoren, hala nola antzintasuna edo kasuan kasuko beharrezko ekipamenduen berariazotasuna, azkenean administrazioak bere iritzia eman zezala ere eskatzen zuten.

5. Ordezkariak gestio gehiago egin ondoren, bai Bilboko Udalean, bai aipaturiko saskibaloia klubarekin, alde bietan nahi zituzten instalazioak patinaje klubarekin partekatzeke prest zegoela adierazi zuten saskibaloia klubak. Hala, instalazioak erabiltzea eskatzen zuten erakundeen artean banatzeko ebazpena eman zuten udalak, eta ordutegia ezarri zion bakoitzari. Klub kexagilearen kasuan, hauxe izan zen: astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etik 21:30era eta larunbatetan eta igandeetan 16:00etatik 19:00etara.

Arartekoak orduan irizitakoaren arabera, eta nahiz eta Administrazioak egoki eta zuzen jokatu zuten eraginpeko klubei haien arteko akordioa lortzea eskatuta, horrekin batera komenigarria izango zatekeen jarraibideren bat ematea, ahal



dela gizarte arlokoa, akordio hori lortzen laguntzeko. Nolanahi ere, erakunde honetan espedientea abiarazi zuen gatazka zehatza behar bezala bideratuta zegoen eta, beraz, espedientea itxi egin zen.

6. Hala ere, arazoa berriz ere agertu zen instalazio berak 2018-2019 ikasturtean erabiltzeko eskaerekin. Patinaje klub berak Arartekoarengana jo zuen 2018ko martxoan, bere eskaera 2018ko urtarrilaren 4an eskatua zuela adierazteko, baina ez zuen erantzunik jaso, ikastetxearen aginduzko txostena noiz jasoko zain baitzegoen Bilboko Udala.

Alabaina, txosten hori –maiatzaren 23an artean ez zegoen jasota udaletxean-saskibaloia klub berak aurkezturiko eskaeraren zioz eman zen. Izan ere, aurreko ikasturtean, sailak bultzaturiko konpromisoarekin bat etorriz, erabili beharreko instalazioak kexagilearekin partekatu zituen talde horrek. Eskaera udal bulegoetako sarrera-erregistroan jaso zen 2017ko abenduaren 5ean, eta horren ondorioz, 2017ko abenduaren 28ko udal ebazpena eman zen. Hori dela bide, instalazioa soilik talde horrek erabiltzeko modua zegoen esleituriko ordutegian.

Egoera ikusita, patinaje klub kexagileak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, hiru arlotan:

1.- Hala planteaturiko gatazkaren gaineko berdintasunezko ebazpena lortzeko esku har dezala.

2.- Indarreko araudia edozein delarik ere, hauexek adieraz zitzala: instalazioaren erabilera lehenbizi eskatzen duenari esleitu beharra, Indautxuko eskoletako instalazioak erabili nahi duten guztien arteko akordioa susta zezala eta denbora banaketa berdintsua eman zedila.

3.- Araudia aldatzea komeni dela proposa zezala, eskaerak aurkezteko epe zehatz bat arautzeko.

7. Arartekoak Bilboko Udalarari planteatu zion auzia, bai gaiari buruzko berariazko ebazpena eman beharri dagokionez, bai egokitzat eta zuhurtzat jotzen genuen neurriarekin batera (halakoa zen eskaera: instalazioak ordu berean erabiltzeko eskaera egin zuten klubek akordioa lor zezatela), Kluben arteko akordioa errazteko jarraibideak emateari dagokionez.

Udalak bere Euskara eta Hezkuntza Sailaren txostenaren bidez eman zuen erantzuna. Funtsean, hauxe proposatzen zuen:

- Berretsi egiten zuen, 2017ko abenduaren 28ko ebazpenaren bidez, CEIP Indautxuko Eskola HLHIko instalazioen erabilera aipaturiko saskibaloia klubari ematea 2018-2019 ikasturterako.

Erantzunean zioenez, baimena eman zitzaien ikastetxeko zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzak aurretiazko beren txostenean ezarritakoaren arabera.





“Hortaz, Udalak ez du informaziorik erabilera horrek ikastetxean lehenagotik aurreikusitako beste jarduerarik oztopatzen duen ala ez, edota ikastetxeak edo Eusko Jaurlaritzak erabilera hori komenigarritzat jotzen duten ala ez. Udala txosten horietan oinarritzen da ikastetxeak bertan egitea komenigarritzat jotzen dituen jarduerari buruzko iritzi formal hutsa emateko”.

- Ebazpenik ezari dagokionez, berretsi egiten zuen patinaje klubaren eskaeraren sarrera-erregistroa 2018ko urtarrilaren 4koa zela. Ebazpena, udalak dioenez, ikastetxeari igorri zitzaion aginduzko txostenerako, baina horrelakorik ez zen eman maiatzaren 23rako.

Udalaren erantzunarekin batera, 2017ko abenduaren 28ko ebazpenaren kopia aurkeztu zen. Horren bidez, aipaturiko saskibaloia klubari eman zitzaion instalazioak erabiltzeko baimena. Erantzunaren arabera, eskaera 2017ko abenduaren 5ean aurkeztu zen, eta eskaturiko ordutegi osorako eman zitzaion baimena, hots, adosturiko banaketaren arabera orduan baliatzen ari zena eta patinaje klub kexagileari akordioan zegozkion ordu gehienak.

8. Arartekoak, era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera jo zuen, neurriak bi aldetatik hartzeko zuen prestutasunaren berri eman ziezaion:

- 76/2008 Dekretua aldatzeko, arlo horretan erreferentziako araudi argia eta segurtasun juridikoa betetzen duen araudia izate aldera.
- Administrazioak erakunde interesatuetan aurretik eginiko jarduerak eragin litzakeen igurikapen legitimoak ez zapuzteko, baita taldeetan kirola egiten duten adingabeei eta familiei kalterik ez eragiteko ere, hain zuzen 2018-2019 ikasturterako berariazko ebazpen berria emate aldera. Horren bidez, erabili beharreko instalazioak partekatuta erabiliko dira, eskaera egin duten klubari zentzuzko ordutegia esleituta.

Sailak Bizkaian duen Ordezkaritzaren txostenaren bidez erantzun zuenez, lehenik eta behin auzi honetan izandako esku-hartzea adierazi zuen, honako ebazpen honen aurrekarietan bildutakoaren arabera. Esku-hartze horren baitan, Saileko zerbitzu juridikoei txosten baten eskaera formala egin zuen, 2017ko azaroan, hain zuzen ere instalazioak erabiltzeko baimenetarako prozedurak Ordezkaritzari berari sorrarazten zion kezka zela-eta, orduan nahiz etorkizunari begira. Eskaera hartan, araudiak zekartzan arazoei eta hutsuneei buruzko azterketa xehatua egiten zen, baita araudia aldatzeko balizko irtenbideen gainekoa ere.

Eskaerari erantzuna, txostena eman zuten Saileko zerbitzu juridikoei 2018ko otsailaren 5ean. Horri lotzen zaio Ordezkaritzak bere erantzunean, hauxe adierazteko: ez dagoela 2018-2019 ikasturterako irtenbide berri zehatza emateko moduan. Gauzak ez errepikatzearen, gogoetei buruzko atalean aipatuko dugu hori guztia.





9. Klub kexagileak 2018ko urtarrilean eginiko eskaerari dagokionez, idazkia bidali zion Bilboko Udalak talde horri abuztuaren 8an. Horren bidez, eskaeraren aldeko txostena eman zela adierazi zitzaion, bai ikastetxeko zuzendaritzaren aldetik, bai Eusko Jaurlaritzaren beraren aldetik.

Udalaren idazkiak jarraian dakarrenez, aldeko txostenak ikusita, eskaturiko jarduerarako baimena ematekotan zen, baina orduan ohartu zen bat zetorren saskibalo klubari 2017ko abenduaren 28an emandako ordutegiarekin -arestian azaldu denez-. Bi jardueretarako aldeko txostena izanik, saskibaloikoa eta patinajekoa, hauxe jakinarazi zuen udalaren idazkiak: *“se han remitido nuevamente al Gobierno Vasco para que por la instancia que consideren oportuna aclaren los horarios y vuelvan a emitir informes adecuados sobre la conveniencia o no de dichas actividades y al objeto de que el Ayuntamiento se pueda pronunciar adecuadamente al respecto.”*

Ikasturtea hasita, saskibalo taldea hasi zen ikastetxeko instalazioak erabiltzen emandako arauen arabera. Klub kexagileak, berriz, beste kantxa batzuk alokatu behar izan zituen nahitaez, taldeko umeek patinajea egiten jarraitzeko modua izan zezaten. Familiek zenbatetsitakoaren arabera, hilean 2.000 euroko kostua izan da haientzat.

2018ko irailaren 5ean, Indautxuko eskolak 2018-2019 ikasturtean erabili ahal izateko eskaera egin zion Udalari, gutxienez instalazioak saskibalo klubari esleitu ondoren libre gelditu ziren asteko bi ordu bakarretan, hau da, igandetan 16:00etatik 18:00etara. 2018ko irailaren 21ean, eskaera horren aldeko ebazpena eman zuen Udalak, eta eskaera aurkeztu zutenek irailaren 27an jaso zuten posta elektronikoko bidez.

Aurrekari horiek ikusita, Arartekoak egoki irizten dio gomendioa dakarren ebazpen hau emateari, honako hauek oinarri hartuta:

Gogoetak

1. Honako espediente hau abiarazi duen kexan eta lehen aurrekarian aipaturikoan, protagonista berak daude. Baina ez hori bakarrik, araudiaren disfuntzio berari dagokion auzi bera dakarte. Izan ere, honako ebazpen honen bi asmoetako bat izango da disfuntzio hori gainditzea etorkizunari begira. Bestea, berriz, Arartekoa erakundearen aurkaratu den jarduketara zehatza berdintasun irizpideekin zuzentzea izango da.

Hain zuzen ere ikasturte bakoitzean honako eskaera hau aurkezteko unea ez zehaztearen ondorioz gertatzen da disfuntzioa: *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren hezkuntzako eraikinak eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan bilduta ez dauden jardueretarako erabiltzeko baimena.* Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretua da baimen horretarako araudia. Izan ere,



eskaerak lehenesteko irizpideak aipatzen dira haren 4. artikuluan, eskaerak elkarren artean bateraezinak diren neurrian. Hori dela bide, dekretuan bildutako gainerako irizpideak aintzat hartuta eskaerak neurri berean sailkatzen direnean, lehenago aurkezten dena lehenetsiko da.

Arazotsuena ez da, berez, denbora lehentasuna izatea irizpidea, baizik eta aipaturiko dekretu arau-emailean, haztapeneko hondar-klausula gisa ezartzean, ez dela aipatzen noiz den bidezkoa eskaera aurkeztea. Zehaztapenik ez izate horrek aurrekarietan islaturikoak bezalako egoerak sorrarazten ditu: segurtasun juridikoa dakarte eta inola ere ez dira legegilearen gustukoak.

Iritzi berekoak dira eraginpeko kirol erakundeak, ebazpen honetako laugarren aurrekarian jasota dagoenaren arabera, eta hori esanguratsua da haien asmoak kontrajarriak direla ikusita. Iritzi hori bere egiten du Hezkuntzak Bizkaian duen Ordezkaritzak Sailari igorritako ziodun txostenean. Azkenik, baina garrantzi txikiagoa izan gabe, Saileko aholkularitza juridikoak, Bizkaiko Ordezkaritzari erantzuteko emandako txostenean, aitortu egiten du indarreko araudiak abusuzko egoerak ekar ditzakeela eta, beraz, komenigarria izango litzateke aldatzea:

“No se escapa al conocimiento de quien suscribe que no existiendo un plazo concreto para la presentación de solicitudes, puede darse el caso de existencia de abusos por parte de los solicitantes, llegando a presentar solicitudes para el uso de las instalaciones con una antelación de años. Por lo que, contemplar, en el propio Decreto, una limitación en este sentido, no estaría de más, pudiendo reflejarse que “solo podrán presentarse solicitudes para actividades que se inicien en el curso académico en el que se presente la solicitud o en el siguiente”...

2. Kexa, zehazki, Bilboko Udalak nahiz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hartzen duten jarduketa bati dagokio, aurrekarian azaldutakoaren arabera. Izan ere, erakunde biek hala jardun dute aipatzen ari garen araudiak agindutako eskumenak direla bide.

Araudi horren itzalpean, klub kexagileak Bilboko eskolako instalazioetan patinaje artistikoa 2016-2017 ikasturtean egiteko 2016ko maiatzean aurkezturiko eskaera ukatu zuen. Uko egin zion eskaerari, zeren eta beste kirol erakunde batek, gainerako lehentasunezko irizpideen arabera era berean horretarako gai denak, lehenago eskatua baitzuen instalazio beretan saskibaloian jokatzeko baimena.

Alabaina, 2017-2018 ikasturteari begira eta baimena ukatzeko ebazpen horretako oinarri jarraiki, patinaje klub berak 2017ko urtarrilera aurreratu zuen eskaera, baina udalak berriz ere ukatu zion, orduan goizegi aurkeztu zela iritzita eta, gainera, ez zioten adierazi -horretarako arau oinarririk ez dutelako- zein unetatik hasita ez den goizegi eskaera aurkezteko data.





Hurrengo urtean, berriz ere aldatu zuen irizpidea administrazioak, 2018-2019 ikasturterako are goiztiarragoa den eskaera onartuta: 2017ko abenduan aurkeztu zuen bi urte lehenago instalazioak erabili zituen saskibaloia klub berak. Horrenbestez, eta lehenbizi aurkeztu zen eskaera izanik, erakunde kexagileak hilabete geroago aurkeztu zuenarekiko lehentasuna bakarrik ez baizik eta eskaera onartzeak ahalmena ematen dio aipaturiko saskibaloia klubari instalazioak erabiltzeko ia eskuragarri dagoen ordu guztietan. Horren guztiaren ondorioz, eta igande arratsaldeetan bi orduetan izan ezik, patinaje klubak galdu egiten du instalazioak partekatuta erabiltzeko aukera, 2017-2018 ikasturtean egin izan zuen bezala Hezkuntza Sailak eskatuta eginiko orduen banaketa zela bide.

Arartekoaren iritziz, osotasunean hartu behar da jarduketa hori, hiru ikuspegitatik hain zuzen:

- Alde batetik, segurtasun juridikoa.
 - Bestalde, herritarrengan sortutako zentzuzko igurikapenak, horrelako eskaerak aurkezteko denboraren aldetik dauden beharkizunei dagokienez.
 - Azkenik, bazterkeria saihesteko berdintasunezko irizpideak aplikatzen dituzten irtenbideak aurkitu beharra, bazterkeria izan baitzen iazko ikasturtean aplikaturikoan.
3. Aipaturiko lehen alderdiari dagokionez, Bilboko Udalak 2018-2019 ikasturterako hiru aste lehenago aurkezturiko eskabidea onesteko emandako 2017ko abenduaren 28koa ebazpenak badu babesa maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuan. Baina egia da ere, arau horri hitzez hitz erreparatuz gero eta Hezkuntza Sailak berak aitortzen duenez, ez legokeela eragozpenik izango aurreko urteko abenduan ez baizik eta ikasturtearen hasieran aurkezteko; bi urte aurretik ere aurkezteko modua legoke, eta horrek egoera kaotikoa ekarriko luke eta, agerikoa denez, ez da horrelakorik nahi.

Hala ere, halakotzat jo behar da espediente hau abiarazi duen egoera; izan ere, administrazioaren azken ebazpenak ikusita, hauxe izango litzateke kirol klubeko arduradunek erakundea zentzuz kudeatzeko modu bakarra: etorkizuneko eskaerak hainbat urte lehenago egitea. Hori guztia berezitasun batekin: administrazioak gai honen inguruan azken hiru urtean eginiko jarduketak, kontraesankorrak izanik, dekretu arau-emaile beraren itzalpean gertatu dira. Dekretuan ezarritakoa ez dute hitzez hitz urratzen eta, beraz, agerian gelditzen da aldatu beharra dagoela.

Ez da erakunde honen eginkizuna nola aldatu beharko litzatekeen adieraztea. Aitzitik, egungo egoerak dakartzan disfuntzioak erakutsi behar ditu erakunde honek, baita segurtasun juridikoa edozein kasutan zaindu beharra ere. Segurtasun juridikoa bermatzea, azken finean, ezinbesteko eginkizuna da



Administrazioari dagokion legeen garapenean. Hori guztia bi helbururekin: batetik, pertsona edo erakunde interesatuek jakin dezaten zer bete behar duten eskaerak aurkezteko epealdiari dagokionez; bestetik, eskaeren arteko lehian, aplikatu beharreko gainerako faktoreak direla bide ezin ebatzi daitekeenean, berdintasun irizpideen arabera eman beharko litzateke ebazpena eskaera denboran eta forma egokietan egin dituztenen artean.

Hezkuntza Saileko aholkularitza juridikoak berak ematen du balizko irtenbidea, arestian aipatu dugunez, hauxe galdatzen duenean araudia aldatzearen aldetik: *para actividades que se inicien en el curso académico en el que se presente la solicitud o en el siguiente*. Muga hori ezartzea, zalantzarik gabe, lagungarria izango da arauak, egun idatzita dagoen bezala, dakartzan abusuak ekiditeko, baina nekez kudea daitezkeen egoerak eragin litzake baldin eta eskaera aurkezteko ezarritako lehen egunean aldi berean aurkezten badira lehian diren eskaerak (aztergai dugun auzian, eta azken hiru urtean gertaturikoa ikusita, hala gerta liteke).

Arrisku hori txikiagoa izan liteke ikasturte bakoitzean epealdi bat ezarrita horrelako instalazioak erabiltzeko eskaerarako, ondoren denbora jakin batean izapidea xedatuta, non lehian izan litezkeen eskaeren artean dagoeneko ezarrita dauden lehentasunezko irizpideak aplikatuko liratekeen, halako moldez non, bi eskaera edo gehiago sailkatzen badira, administrazioak berak proposatuko baitu azken finean (halaxe eginga zuen iazko ikasturtean) lehian diren instalazioak erabiltzeko ordutegien berdintasunezko banaketa.

Azkenik, betiere araua aldatzeari begira, beharbada baliagarria izan liteke aipaturiko lehentasun irizpideak osatzea: kasuan kasuko modalitateak gizartean izan lezakeen onura sartuko litzateke faktoreen artean. Horretarako, kirol modalitateak zenbait arlotan duen berariazko ekarpena balora liteke hala nola genero-berdintasunean, gizarte kohesioan eta gizarteratzean edo aniztasunaren sustapenean.

4. Segurtasun juridikoaren printzipioaren ondoriozko kohesio beharrari dagokionez, gure azterketaren xedea ez da izango Hezkuntza Sailak berriz ere eskatzea alde biei, 2018-2019 ikasturteari begira, aurreko ikasturtean sustaturiko orduen banaketarako akordioa; administrazioak izan zuen kontraesanaz ari gara: 2016an denbora lehenesteko irizpidea jarraitu ondoren klub kexagileak 2016-2017 ikasturterako eginiko eskaera, irizpide hori aplikatzeari utzi zion 2017-2018 ikasturterako, klub beraren eskaera onartu ez zuelako goizegi aurkeztu zela iritzita, baina berriz ere aplikatu zuen urte bereko abenduan, beste erakunde batek aurtengo ikasturterako aurkezturiko beste eskaera goiztiarrago bat onartu zuenean.

Jarduketa baloratzeko, honako nozio hau aipatu beharra dugu: inor ez doa beren jarduketan aurka, eta administrazioari dagokionez, eta batez ere Kode Zibilaren 7.1. artikulua duen lege oinarria izanik, egoera juridiko jakin bat sortu, finkatu, aldatu edo deuseztatu duten jarduketetan aplikatu behar da, hain



zuzen ere aurretiazko jokabidearekin bateraezinak edo kontrajarriak diren eta herritarren jokabidean zentzuzko igurikapen legítimoak sortu dituen jarduketetan.

Hala ezarri du 2007ko urtarrilaren 2ko AGEk (3. sala) hauxe dioenean:

"El principio de protección de la confianza legítima ha sido acogido igualmente por la jurisprudencia de esta Sala del Tribunal Supremo (entre otras, en las Sentencias de 1 de febrero de 1990, 13 de febrero de 1992, 17 de febrero, 5 de junio y 28 de julio de 1997), y se consagra en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, tras su modificación por la Ley 4/1999, que en su artículo 3, cuyo número 1, párrafo 2º, contiene la siguiente redacción: 'Igualmente, deberán (las Administraciones Públicas) respetar en su actuación los principios de buena fe y de confianza legítima'. El contexto interpretativo de estos principios jurídicos se advierte en la Exposición de Motivos de la citada Ley procedimental administrativa, cuando afirma lo siguiente: 'En el título preliminar se introducen dos principios de actuación de las Administraciones Públicas, derivados del de seguridad jurídica. Por una parte, el principio de buena fe, aplicado por la jurisprudencia contencioso-administrativa incluso antes de su recepción por el título preliminar del Código Civil. Por otra, el principio, bien conocido en el derecho procedimental administrativo europeo y también recogido por la jurisprudencia contencioso-administrativa, de la confianza legítima de los ciudadanos en que la actuación de las Administraciones Públicas no puede ser alterada arbitrariamente'" (reiterado en STS –Sala 3ª–, de 18/10/2012).

2018ko otsailaren 6ko 168/2018 zk.ko AGEk (4. sala) ildo horretan finkaturik dagoen jurisprudentzia biltzen du; nozio hori eta administrazioa erlazionatzen ditu eta Europako zuzenbide komunitarioaren printzipio orokorrekin lotzen ditu:

Como hemos expuesto en nuestra sentencia de esta Sala de 21 de febrero de 2006 (rec. cas. núm. 5959/2001), se reproduce en la sentencia de 15 de diciembre de 2007 (rec. cas. núm. 1830/2005) y de 11 de mayo de 2017 (rec. cas. núm. 1960/2015), el principio de confianza legítima, tiene el siguiente ámbito de protección, condicionado a la concurrencia de estos presupuestos: «El principio de buena fe o confianza legítima, principio que tiene su origen en el Derecho Administrativo alemán (Sentencia de 14-5-1956 del Tribunal Contencioso- Administrativo de Berlín), y que constituye en la actualidad, desde las Sentencias del Tribunal de Justicia de la Comunidad Europea de 22-3-1961 y 13-7-1965 (asunto Lemmerz- Werk), un principio general del Derecho Comunitario, que finalmente ha sido objeto de recepción por nuestro Tribunal Supremo desde 1990 y también por nuestra legislación (Ley 4/99 de reforma de la Ley 30/92, art. 3.1.2). Así, la STS de 10-5-99 , recuerda "la doctrina sobre el principio de protección de la confianza legítima, relacionado con los más tradicionales en nuestro ordenamiento de la seguridad jurídica y la buena fe en las relaciones entre la Administración y los particulares, y que comporta, según la doctrina del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas y la jurisprudencia de esta Sala, el que la autoridad





pública no pueda adoptar medidas que resulten contrarias a la esperanza inducida por la razonable estabilidad en las decisiones de aquélla, y en función de las cuales los particulares han adoptado determinadas decisiones. O dicho en otros términos, la virtualidad del principio invocado puede suponer la anulación de un acto o norma y, cuando menos, obliga a responder, en el marco comunitario de la alteración (sin conocimiento anticipado, sin medidas transitorias suficientes para que los sujetos puedan acomodar su conducta y proporcionadas al interés público en juego, y sin las debidas medidas correctoras o compensatorias) de las circunstancias habituales y estables, generadoras de esperanzas fundadas de mantenimiento"

Ohartarazi beharra dago ezen, jurisprudentzia horrekin bat etorri, administrazioak sortutako konfiantza legitimoa ez dela islatzen bere jarduketan eremu guztietan, baizik eta ahalmen edo autonomia printzipioek eraendutakoetan, auzi honetan gertatzen den bezala. Hortaz, ez gara arauturiko alderdiez edo araudiko eskakizunez ari, zeinen aurrean ezin baitaiteke nagusitu Zuzenbide Administrazioan egintza batean edo alderdi horien kontrakoa den aurrekarian ebaztitakoa.

Azken kasu horretan, gainera, Auzitegi Gorenak beste zehaztapen bat egiten du, bereziki garrantzitsua dena kexa ebazteko: konfiantza legitimoa sorrarazten den ala ez behar bezala aztertzeko, Auzitegi Gorenak adierazi duenez, prozeduraren xede zehatza hartu behar da premisatzat, baita erakunde kexagilearen solaskide-lanak egin zituen organoari zegokion eginkizun mota ere.

Irizpide hori aztergai dugun auzian aplikatuta, hauxe esan behar dugu: 76/2008 Dekretuaren 4.3. artikuluan xedea, araupetzen dituen instalazioak erabiltzeko eskaeren artean hondar-lehentasuneko faktorea ezartzean, ez dela soilik balizko lehia ebaztea. Eskaerak egingo dituzten kirol taldeekin batera ere jarduten ari da. Talde horiek, zentzuz jokatzeko duten heinean, beren jardura arauan hitzez hitz ezartzen duenari egokitzeko joera izango dute, baita administrazioak araua aplikatzeko darabiltzan irizpideei ere. Aplikazio horrek, beraz, itxura juridikoa sortzen du, igurikapen legitimoak dakartzana, eta koherentziaz jokatzera behartzen du administrazioa egoera juridikoen egonkortasuna eta fede ona babeste aldera, betiere beren jarduketa islatzen deneko inguruabar faktikoak aldatzen ez badira.

Aztergai dugun auzi honetan, inguruabar horiek berdin eutsi diote azken hiru ikasturteetan. Hiru ikasturteetan emandako ondoz ondoko ebazpenek, kontrajarriak izanik ere, ez dakarte aldaketarik instalazioak erabiltzeko posibilitateetan, dela obren zioz, dela lehentasuneko beste erabilera batzuegatik. Era berean, erakunde berek eskatu dituzte instalazioak eskolako ordutegitik kanpora erabiltzeko, eta ez dira aldatu eskaerak egiteko arrazoiak eta erakunde horiek eskaerak egiteko lehiako terminoak.

Egoera horretan, hauxe ondorioztatu behar dugu: kexaren xedeko gertaerek hautsi egiten dutela administrazioaren aurretiazko jarduketa batek



herritarrengan sortutako konfiantza legitimoa. Konfiantza horrek garrantzizkoa den egoera batekin du zerikusia, hain zuzen ere beren espezialitatean jardun ahal izateko egokiak diren instalazioak ikasturte bakoitzean eskuragarri izan diren ala ez aurreikusteko posibilitatearekin. CEIP Indautxuko Eskola HLHren titulartasuna udalari dagokion neurrian, eta zerbitzu ematen dieten 100 adingabeetatik 85ek Eskola Kirolean egitarauan parte hartzen dutela kontuan hartuta (gainerako 15ak oraindik aurre-benjaminak dira, 4-7 urtekoak), klub kexagileak eskubidea zuen botere publikoek zentzuzko ziurtasuna eman zezaten aurreikuspen horretarako, prozedura eta jarraibide argiak eta denboran koherenteak ezarrita. Hori guztia xede batekin: zer espero den jakitea horrelako eskaera motak aurkezteko epeen aldetik dauden beharkizunen inguruan, batez ere auziari buruzko aurreko ebazpenak eraendu zituzten irizpideak uneoro bete ondoren.

5. Konfiantza horri erantzuna ematea Bilboko Udalari nahiz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokie, araudiak arlo horretan agintzen dizkien eskumenen eta jarduketa zehatzaren arabera. Izan ere, eskumenok erabiliz, eta aurrekarietan agerrarazitako terminoetan, beren eginkizuna gauzatu izan du praktikan erakunde bakoitzak.

Neurri berean, orain arte esandakotik ondoriozta daiteke bi administrazioek nahitaez zuzendu behar dutela hala sortutako egoera, bai administrazio-jardunaren funtsezko printzipioekiko bateraezina delako, bi klub kexagilean kirola egiten duten haurrentzat dakarren konparaziozko bidegabekeriagatik. Izan ere, iazko ikasturtean etxetik hurbil zeuden instalazio batzuetan entrenatu baziren ere, eta gehienek ikasten duten ikastetxean bertan gainera, beste instalazio batzuetara joan behar izan dute eta, gainera, beren familiek ordaindu behar izan dituzte errenta gastuak ordura arte ordaindu behar izan ez zituzten kuoten bidez.

Erakunde honen iritziz, egoera hori finkatzen duten ebazpenak ondoriorik gabe utzi behar dira egoera zuzenduko bada, baita ebazpena eman ere, hain zuzen berdintasunezko irizpideak baliatuz Indautxuko eskolak ikasturte honetan erabiltzea eskatu zuten bi erakundeen interes legitimoak eta igurikapenak bete ahal izateko. Hori guztia arestian aipatu dugun araua aldatu bitartean.

- Lehenbizikoari dagokionez, indarreko bi ebazpen dira, udalak emanak biak: 2017ko abenduaren 28koa, eskaera abenduan egin zuen saskibaloia klubari eskuragarri zegoen ordutegi osoan erabiltzeko baimena eman ziona, igande arratsaldeetan izan ezik; eta 2018ko abenduaren 21ekoa, bi ordu horiek klub kexagileari esleitu dizkiona. Bi ebazpenok eman diren terminoak eta balizko ezeztapena emateko araudi aplikagarrian dauden aukera zabalak kontuan hartuta, zuzenbideari lotuta egongo litzateke zalantzarik gabe, inguruabarrak ikusita.

Izan ere, bi ebazpenetan zehazten denez, ez diote aurretiazko eskubiderik aitortzen erakunde esleipendunari instalazioak hartzeko, eta berariaz aipatzen da



uneoro ondoriorik eta kalte-ordainik gabe gera litezkeela. Baimena jasotzen duten erakundeek, bestalde, onartu egiten dute baimena ezeztatu egin daitekeela instalazioak erabiltzen hasita ere, zioak dakartzan jakinarazpen baten bidez.

Baimena osorik edo zati batez ezeztatzeko posibilitatea, era berean, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuan bertan dago ezarrita: 10. artikulua horretarako agindua emateko ahalmena ematen dio, baita zatizko ezeztapena denean baldintza berriak ezartzeko ere lurralde ordezkariari edo, hala denean, udalari. Ezeztapena zurrizko arrazoiei dagokienez, Arartekoak uste du ezen orain arte azterketa honetan esandakoek badutela tokia aipaturiko arau horretako 10. artikuluan biltzen dituen zioen artean. Oso zentzu zabalean ematen du zioa: *“nahikoa zioa den beste edozein kausa”*:

10. artikulua.- Baimena baliogabetzea.

1.- Ikastetxeko zuzendariaren iritziz instalazioak erabiltzeak ohiko eskola-jarduera gauzatzeko egiazko kalteak badakartza edo baimena emateko baldintzak,- bai egiten den jarduera eskatu zena ez izateagatik, bai ezarritako iraupenari lotzen ez zaiolako, bai exijitutako zenbatekoa ordaindu ez izanagatik, bai ikastetxeak berak instalazioak behar izateagatik, bai beste pisuzko arrazoi batengatik,- betetzen ez badira, ahalik eta lasterren jakinaraziko dio lurralde ordezkariari edo Udalari.

2.- ...

3.- Lurralde ordezkariak, edo Udalak, zuzendariari eta baimenaren onuraduna den pertsona fisiko edo juridikoari aldez aurretik entzun ondoren, baimenari eusten dion edo erabat edo partzialki baliogabetzen duen erabaki beharko du. Partzialki baliogabetuz gero, baliogabetze partzial horren maila eta bere baldintzak zehatz- mehatz finkatuko ditu.

4.- Baliogabetzeak, bai erabatekoa, bai partziala izan, ez du inoiz ere baimena lortu zuenak edo beste edozein pertsona fisiko edo juridikok indemnizazio edo ordainsaririk jasotzeko eskubiderik eragingo.

- Bigarrenari dagokionez, Indautxuko Eskolak erabiltzeko lehian aritu izan diren kirol klubek artean izan beharko litzatekeen akordioa aipatu behar dugu. Akordioa lortzeko eskaera egin ondoren, Hezkuntza Saileko Bizkaiko Ordezkaritzak ordutegiak banatzea bultzatu zuen iaz, eta horren bidez, instalazioak partekatu egin dira 2017-2018 ikasturtean. Arartekoak akordioari eustea planteatu zuen ikasturte honetarako aldi baterako balizko irtenbidetzat, araudiaren disfuntzioa konpondu artean. Eraginpeko erakunde guztiek partekaturiko diagnostikoaren arabera, disfuntzio hori da arazoaren oinarria. Hala ere, Sailak erakunde honi erantzun zion akordioa *ad hoc* irtenbidea izan zela eta, berez, ezin bihur daiteke ohiko prozedura instalazioak esleitzeko aldean arteko gatazka gertatzen denean.





Arartekoak balioetsi eta eskertu egiten du Hezkuntza Saileko Bizkaiko Ordezkaritzak uneoro emandako laguntza: auziari buruzko xehetasun guztien berri eman die, bitartekari lana egin du aldean artean ahal izan duen neurrian eta bere iritzia azaldu du Sailaren aurrean 8. aurrekarian bildutakoaren arabera. Araudiak hobetzeko marjina baduela irizten dio, eta gu ere horrekin bat gatoz.

Aitzitik, erakunde honen ustez, administrazioa ordutegien banaketari buruzko akordio horretara bultzarazi zuten inguruabarrak aldatu ez direnez gero, berriz ere eskatzen du akordioa lor dezatela, baina horrek ez du esan nahi ezinbestean ohiko prozedura gisa finkatuko denik horrelako gatazketan, baizik eta erantzukizunez jokatzeko arazo baten aurrean, hain zuzen ere hemen aztergai ditugun ondorioetarako, bi kirol klubek aurre egin beharreko arazoa, instalazio berak ordutegi berean erabili nahi izateagatik: interes gatazka konpontzeko den araudiaren zehaztapenik ezak kasu honetan ekarri dituen kalteak nolabait konpontzea da xedea, eta administrazioak berak egoera zaildu egin du denboran izan dituen kontraesanen bidez, azaldu dugun bezalaxe.

Horregatik guztiagatik, Arartekoa erakunde sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan araupeturikoarekin bat etorritz, honako hau zuzentzen die Arartekoak **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Bilboko Udalari**, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak bakoitzari eratzikitako eskumenen baitan:

GOMENDIOA

2018-2019 ikasturtean CEIP Indautxuko Eskola HLHIko instalazioak entrenatzeko eskatu duten bi kirol erakundeei eskatzea instalazioak partekatuta erabiltzeko akordioa lor dezatela. Eta akordioa lortu ezean, erabilera hori euren artean bana dezatela berdintasuneko irizpideak aplikatuz, bakoitzari asteko ordutegia esleituta. Hori guztia aurtengo ikasturterako nahiz eskaerak aurkeztuko dituzten hurrengo ikasturteetarako, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretua aldatu bitartean, ebazpen honetan eskaturikoari jarraituz.

Izapide egokiak egin aurretik, zati batez ezeztatu ditzatela Bilboko Udalaren 2017ko abenduaren 28ko eta 2018ko irailaren 21eko ebazpenak, halako moldez non horien irismena eta baldintzak bateragarriak izango baitira instalazioak 2018-2019 ikasturtean partekatuta erabiltzearekin, aipaturiko banaketaren arabera.

Horretarako ezarritako prozedurari jarraituz, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren aldaketa sustatu dezatela ebazpen honetan bildutakoaren arabera, bi helburu lortu ahal izateko: batetik, pertsona edo erakunde interesatuek jakin dezaten zer bete behar duten eskaerak aurkezteko epealdiari dagokionez; bestetik, eskaeren arteko lehian, aplikatu beharreko gainerako faktoreak direla bide ezin ebatzi daitekeenean, berdintasun irizpideen arabera eman beharko litzateke ebazpena eskaera denboran eta forma egokietan egin dituztenen artean.

